

EUSKARAZ IZANGO GARA

lehiaketako oinarriak

0.- ERAKUNDE ANTOLATZAILEA

Danobatgroup kooperatibak F20139804 IFKdunak eta Elgoibarko Arriaga kalea 21ean helbideratutakoak lehiaketa bat antolatu du, "EUSKARAZ IZANGO GARA" izenekoa, kooperatiba taldeak kooperatibak dituen gizarteari zuzendutako lehiaketa hain zuzen ere, eta honako oinarri hauek arautuko dutena.

1. TESTUINGURUA:

Danobatgroupeko kooperatibek martxan dituzten euskara planen ekimenetariko bat gisa, egindako lana gizarteratu eta zabaltzeko asmoz kooperatiba taldeak lantegiak dituen herrietako gizartera euskararekiko konpromisoaren berri eman nahian lehiaketa bat antolatu du, herrietako astekari edo aldizkarien bidez eta www.danobatgroup.com/eu/euskara helbidearen bidez.

2. LEHIAKETAREN DESKRIBAPENA:

Parte hartzaileek iragarkian ematen den web helbidean <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2024.html> edo QR kodean sartu eta bertan agertzen den galdera erantzun beharko dute.

Lehiaketaren xedea Danobatgroupek euskararekiko duen konpromisoaren berri izatea da <https://www.danobatgroup.com/eu/jasangarritasuna#Gizarte-erantzukizuna>.

Ariketan egiten den galdera erantzun beharko da. Asmatzen dutenen artean zozkatuko da saria.

3.- LEHIAKETAREN IRAUPENA:

Sustapenak 2024ko azaroaren 18tik abenduaren 3ra (00:00 h) bitartean iraungo du.

Hortaz, lotura 2024ko azaroaren 17an jarriko da jendearentzako eskuragarri, eta 2024ko abenduaren 3an gaueko 12:00etan bertan behera geratuko da.

Erantzun guztiak web bidez jasoko dira eta jasotako guztien artean bat izango da irabazlea.

2024ko abenduaren 4an zozketa egiten denetik aurrera argitaratuko da irabazlearen izena argazkiarekin batera iragarpena egiten den komunikabideetan (Barren, Goiena, Pil pilean, Plaentxia.eus eta Berriketan) eta baita www.danobatgroup.com/eu/euskara helbidean.

4.- DOAKOTASUNA

Lehiaketa hau doakoa da, eta, hala, ez da beharrezkoa parte hartzeko inolako produkturik erostea, ezta lehiaketako sariak eskuratzeko ezer ordaintzea ere.

5.- SARIA

Ariketa ondo erantzuten dutenen artean 2 pertsonentzako dastatze-menua zozkatuko da Elgoibarko Belaustegi Baserrian.

6.- PARTE-HARTZAILEAK

Danobatgroupek kooperatibak dituen herrietako herritarrei zuzendutako lehiaketa izango da.

Lehiaketan parte hartzeak adierazten du parte-hartzailea oinarri hauen jakitun dela eta onesten dituela; hori dela eta, ez dago oinarriak inpugnatzerik.

Lehiaketan parte hartzeko telefono zenbaki bat eman beharko da.

Telefono zenbaki bakoitzeko kide bakarrak erantzun ahal izango du lehiaketako galdera.

Danobatgroup erakundeak berentzat gordetzen du telefono zenbaki batekin erantzun bat baino gehiago jasotzen bada lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea.

Antolatzaileen erabakiak apelaezinak izango dira, eta parte-hartzaile guztiek men egin beharko diete. Parte-hartzaileek, beraz, berariaz uko egiten diote lehiaketaren epaia inongo bidetatik inpugnatzeari. Antolatzaileek berentzat gordetzen dute aurkeztutako erantzunak egokiak ez badira zozketan irtendakoa baztertu eta beste bat aukeratzeko eskubidea eta erantzun zuzenik egongo ez balitz lehiaketako sariak eman gabe uzteko eskubidea.

7.- LEHIAKETAREN MEKANIKA

1.- Antolatzaileek Danobatgroupeko www.danobatgroup.com/eu/euskara helbidean, Danobatgroupen sare sozialetan eta lantegiak dituen herrietako aldizkari edo astekarietan iragarriko du lehiaketa ondoren adierazten den bezala:

Elgoibar: Barren

Bergara: Goiena

Soraluze: Pil pilean eta Plaentxia.eus

Deba: Berriketan

2.- Hautatutako herri aldizkarietan iragarki bat jarriko da lehiaketa iragarri eta bertan web bidezko lotura baten helbidea lehiaketan parte hartzeko eta baita QR kode bat ere.

3.-Lehiaketako galdera osatzeko datuak bete eta bidaltzeko telefono zenbaki bat eta izen-abizenak eskatuko dira. Telefono zenbaki bakoitzeko erantzun bakarra eman ahal izango da

Saria ariketa ondo erantzun duten parte hartzaileen artean zozkatuko da.

8.- ISILPEKOTASUNA

Pribatutasun politika jarraituko da:

<https://www.danobatgroup.com/eu/pribatutasun-politika>